

# **Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra**

Reunión general de principio  
de curso

**- LH1 -**

Orereta-Erreenterian, 2025eko irailaren 22an

## 1. METODOLOGIA

Haur Hezkuntzan hasten den Konfiantzaren Pedagogiaren bideari jarraipena ematen diogu LHn ere. Alde batetik, ikasleak era autonomoan aritzeko uneak eta guneak diseinatu ditugu, erabakiak hartzen eta euren burua erregulatzen ikas dezaten. Bestetik, irakasle taldeak proposatutako proiektuak, taldeka zein bakarka, gauzatu beharko dituzte euren ikasketa prozesua garatzen laguntzeko helburuz.

## 2. EBALUAZIOA

Ikaslearen heziketa prozesua konpetentzietan oinarrituta ebaluatuko da. Ikasturtean zehar bi informe jasoko dira ikasleen lorpenak, garapena eta hobetzekoak islatuz. Informe idatzi horiek Inika bidez helaraziko dira, bata urtarrilaren azkeneko astean eta bestea ekaineko azken eskola egunean.

Informeetan funtsezko konpetentziak zein arloetako konpetentzia espezifikoak ebaluatuko dira.

Honakoak dira ebaluatuko diren **funtsezko konpetentziak**:

- **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia**

Ahoz eta idatziz ondo adierazteko gaitasuna da, besteei ulertu eta beren ideiak argi azaltzekoa. Norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietai ezagutza eraikitzeo oinarria da.

- **Konpetentzia eleanitzuna**

Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gaitasuna da, hizkuntza ezberdineta komunikatzeko eta beste kultura batzuk ulertzeko. Konpetentzia horrek esan nahi du norberaren hizkuntza-profilak aitortu eta errespetatu behar direla.

- **STEM konpetentzia**

Mundua ulertzea dakar berekin; metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniaritza-metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.

- **Konpetentzia digitala**

Teknologia modu arduratsuan eta seguruan erabiltzea da, informazioa bilatzeko, sortzeko eta komunikatzeko.

- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoak**

Nork bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna da, nork bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste

batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko; erresilientziari eusteko; eta bizaldi osoko ikaskuntza kudeatzeko.

- **Herritartasunerako konpetenzia**

Besteekin modu baketsuan eta arduratsuan bizitzen jakitea da: empatia, errespetua eta lankidetza sustatzea.

- **Ekintzaileta konpetenzia**

Ideiak izatea, horiek gauzatzeko planak egitea eta ekimena izatea da. Ez da soilik enpresa egitea, baizik eta sortzailea eta aktiboa izatea.

- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetenzia**

Artea, musika edo kultura-adierazpenak baloratu eta norberak ere sormena garatzeko gaitasuna izatea da. Ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea, baita hainbat arteren eta beste kultura adierazpenen bidez ere.

Aurreko funtsezko konpetentziak lortzeko, ikasleek arloetan egingo dute lana. Horietako arlo batzuk ebaluagarriak izango dira, hona hemen informeetan agertuko diren **arloak**:

- **Euskara eta literatura**

Euskarazko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, bizitzako egoera guztiengatik egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.

- **Gaztelania eta literatura**

Gaztelaniazko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, bizitzako egoera guztiengatik egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.

- **Atzerriko lehen hizkuntza**

Ingelesezko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, ingelesez, bizitzako egoera guztiengatik egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.

- **Matematikarako konpetenzia**

Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharrizanei dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko.

- **Natura, gizarte, kultura ingurunearen ezagutza**

Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza arloa ulertzen da haurrak pertsona guztierekiko eta bizi diren munduarekiko konprometituak, arduratsuak eta errespetuzkoak izatera iristea helburu duen esparru gisa; natura-zientzien, gizarte-zientzien, geografiaren, historiaren eta kulturaren funtsezko alderdiak ezagutzea oinarri hartuta.

- **Arte komunikaziorako konpetentzia**

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzeara eta modu kritikoan balioestea da. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.

- **Heziketa fisikoa**

Norberaren eta gainerako jardun-eremu motorreko egoerak sormenez eta adierazkortasunez lantzea da. Jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarrian oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.

Informeez gain, LH 1. mailako tutoreak bi aldiz elkartuko dira ikasleen familiekin euren seme-alabaren ikasketa prozesua gertutik jarraitzeko asmoz:

- **1. bilera:** urriaren lehen astetik laugarren astera izango dira. Bilera horren xedea familiak eta tutoreak elkar ezagutzea, elkarren arteko konfiantza sendotzea, eta ikaslearen lehen egunetako egokitzapenaren berri ematea izango da.
- **2. bilera:** maiatza eta ekaina artean egingo da, maila bukaerako ikaslearen gaitasunei buruz aritzeko.

## 3. ARLOAK

### 3.1. ZIRKULAZIO AUTONOMOA

Astean zehar hiru orduz izango dute zirkulazio autonomoaz gozatzeko eta ikasteko aukera. Metodologia honekin, ikasleak erabakiak hartzen ikastera bultzatu nahi ditugu; euren burua erregulatzen ikasiz eta autonomia garatuz. Saio hauetan, LH1eko ikasle guztiak elkarrekin zirkulatuko dute.

- **Gune lasaia eta ludikoa:** Ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz diseinatutako txokoak dira eta bertan hainbat zeregin aurkituko dituzte; pentsamendu matematikoan zein irakurketa eta idazketa prozesuan aurrerapausoak eman ditzaten. Testu propioen sorkuntza bultzatuko da, duten idazketa maila dutela

ere. Gune bat lasaia izango da eta besteak, aldiz, ludikotasuna eta jolasa izango ditu helburu.

- **Sormen gunea:** Hainbat diziplinetako (plastika, musika, zientzia, esperimentazioa...) materialez hornitutako txokoak izango dituzte; material horiekin esperimentatzea eta euren sormena piztea izango da helburua.

### 3.2. PROIEKTUAK

Nagusiki, euskara eta literatura, zientzia, eta gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak garatzen lagunten digun materiala da Txanela. Ikasleek, oro har, oso gustuko dituzten gaiak aukeratzen ditugu mailari dagozkion edukiak eskuratu eta konpetentziak garatu ditzaten. Irakasle taldeak gai hauek proposatuko dizkie ikasleei ikasturtean zehar:

- **Iupi, lehenengo mailan gaude!** Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara egokitzenten laguntzeko unitatea dugu hau. Ikaskide berriak ezagutu, talde kohesioa bultzatu, gela antolatu, irakasle taldea eta gelako ordutegia ezagutzeko aukera izango dute gai honetan. Euren buruarekiko zein inguruarekiko konfiantza hartzea eta sendotzea ezinbestekoa izango da ikasturteko helburu eta erronkak era atseginean gainditzeko.
- **Dinoauroen garaian.** Ikasleek historiaurrea-historia ordena kronologikoa jarraituz ezagutuko dute. Lehenengo gaia dinosauroen garaia izango da. Gai honetan garai hartako maketa bat sortzea eta euren familientzako erakusketa bat antolatzea izango dute xede.
- **Lehen gizakia.** Dinoauroen ondoren, paleolitora bidaiatuko dugu denboraren makinan, garai historiko hura ezagutzeko asmoz. Gai honetan informazioa identifikatzen eta eskuratzen ahaleginduko dira. Horretarako, taldean ikastea eta lan egitea beharrezkoa izango dute. Unitate honek antzezlan bat antolatu eta egitea izango du xede.
- **Naturaren sekretua.** Ikasturtea bukatzeko, inguruko elementuak aztertuko ditugu: bizigabeak zein bividunak; horien artean, zuhaitzak, loreak eta animaliak ezagutu eta aztertuko ditugu. Unitate honen helburua gertuko ingurunea aztertu eta erakusketa bat antolatzea izango da.

### 3.3. IRAKASGAIAK

#### ARTE HEZKUNTZA

Arte hezkuntzako saioetarako, Arno Sternen eta Karl Orffen teoriak hartu ditugu oinarri gisa. Haien ideiak aintzat hartuz, ikasleek barruan dutena adierazteko baldintza egokiak eskaintzea da gure egiteko (espazioa, materiala, giro atsegina), eta ikerketa eta esperimentaziorako aukerak ematea.

## **GORPUTZ HEZKUNTZA - PSIKOMOTRIZITATEA**

“Ekintza jolas eta mugimendutik pentsamenduaren sorrerara doan prozesua da, hots, umea mundu sinbolikora iristeko prozesua. Umeak bere irudikapen mental kontziente eta inkontzienteak garatzen ditu bere ekintza, sentsazio eta emozioen bitartez. Umeak “jolasteko eta mugitzeko plazerretik pentsatzeko plazerrera” doan prozesua garatu dezake psikomotrizitate gelan.” (Luzaro psikomotrizitate eskola)

### **BASO ESKOLA**

Añabitarten dugun inguru paregabeari esker, baso eskolan aritzeko aukera dugu; gutxienez hilean behin goiza gure basoan igaroz. Baso eskola naturan garatzen den hezkuntza saioa da. Haurrek basoan edo ingurune naturalean jolastu, ikertu eta ikasten dute. Helduek behatzale papera jokatzen dute bertan, haurrak lagunduz, ez gidatuz.

### **INGELESA**

“The adventures of Hocus and Lotus” materiala erabiliz, ikasturtean zehar ikasleak sei istoriotan murgilduko dira. Helburua ipuinetan, abestietan eta jolasetan ikasitako esaldi egiturak bere egin eta horiek egunerokotasunean txertatzen joatea izango da. Ipuinetan eduki desberdinak landuko dituzte: pertsonaien aurkezpena, arropak, gorputz atalak, jostailuak, urtebetetzeak eta uda.

### **MATEMATIKA**


Innovamat proiektuarekin, manipulazioan oinarritzen diren jarduerak proposatuko dizkiegu ikasleei, ondoren abstrakziorako bidea egiteko gaitasuna gara dezaten. Astean lau saio izango dituzte. Bi saiotan (zenbakien laborategia) zenbakikuntza eta eragiketak landuko ditugu. Beste saio batean (abenturak) geometria, logika, estatistika eta neurriak jorratuko dira. Azken saioan App-a erabiliko dugu beste saioetan ikasitakoa sistematizatzeko helburuarekin.

### **TUTORETZA**

Tutoretza eta orientazioa jarduera multzo bat da, bai gela barruan bai kanpoan landuko dena, eta ikasleei bere garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketak aurrera eramatzen (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

#### **Aniztasunari erantzuna**

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko neurri eta programa multzoa da, oinarrizko konpetentziak ahalik eta gehien garatzen lagutzeko.



## KOMUNITATE PROIEKTUA

Irakasgai honen helbururik nagusiena, konpetentzia sozialak eta zibikoak garatu eta horien bitartez komunitateari ekarpena egitea da. Saio hauetan, gure inguru sozialarekin zerikusia duten gai eta ekimen desberdinak landu eta aurrera eramango ditugu, besteak beste, Gau Beltza, Blaituko jarduerak, martxoak 8, Agenda 30...

## 4. ETXETIK LAGUNDUZ

Familien laguntza ezinbestekoa dugu ikasleen hezkuntzan eta, maila honi dagokionez, jarrera arduratsua eta autonomia garatzen jarraitzea oinarritzko da. Horregatik, honako puntu hauetan arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu:

### ASTEKO ANTOLAKETA

- Zein egunetan izango duen baso eskolako saioa, psikomotrizitatea... konturatzen laguntza beharrezkoa dute. Egun horietarako zein arropa beharko duten prestatzen laguntza beharrezkoa da.
- Etxera oharrik eraman duten ikusi eta hurrengo egunerako motxila eta arropak prestatzea beharrezkoa izango dute.
- Txoko zurirako liburu eta informazioa aurrez elkarrekin prestatzea beharrezkoa izango dute.

### MOTIBAZIOA

- Gelan lantzen diren gaietako interesa erakutsi.
- Ikasturtean zehar izandako aurrerapena baloratu eta goraipatu.

### EUSKARAREN ERABILERA

- Euskal komunikabideak kontsumitzera eta aisialdian euskarazko jarduerak egitera animatu.

### AUTONOMIA

Bai Ikastolako jardueretan, bai eguneroko bizitzan, beraiek ardurak hartzea:

- Sortzen diren arazoei aurre egin.
- Zaitasunen aurrean jarrera baikorra eta aktiboa izan. Beraiek bila ditzatela soluzioak, betiere gure laguntza eskainiz behar dutenean.

Autonomiarantz eman beharreko prozesua progresiboa eta pertsonala da.

## ARTE HEZKUNTZA

- “Ongi dago/gaizki dago”, “marrazki ona/txarra”, “polita/itsusia” bezalako komentarioak ekidin, prozesua oztopatu baitezakete. Horrelako komentarioekin, ikasleen lana epaitzen ari gara. “Gustura zaude?”, “ongi pasatzen ari zara?” bezalakoak erabili.
- “Zer da hau?”, “zer ari zara marrazten?” bezalako galderak saihestu, ikasle bakoitzen faseak errespetatuz (kasu batzuetan, sortutako irudiak ez baitu ezer adierazteko helbururik).
- Konparaketa, lehia eta epaietak saihestuko dituen testuingurua sortu. Ikasle bakoitza bere erritmoa du, bere egitekoa, bere interesa... eta beraz, horiek guztiak ezin dira elkarrekin konparatu.
- Bakoitza nahi duena adierazteko aukerak eskaini, muga eta epaietarik gabe.

*“Haur bakotza artista da, kontua da artista izaten jarraitzea hazten zoazen heinean”. (Pablo Picasso)*

## IRAKURZALETASUNA

Irakurzaletasuna etxean bultzatzeko gomendioak:

- Gurasoak seme-alabentzako eredu izan.
- Irakurketa afektibilitatearekin lotu.
- Gurasoek istorio asko kontatu: gurasoen benetako istorioak.
- Eguneroko egoerez baliatu irakurtzeko, dituzten afizioak aprobetxatu.
- Liburutegira joan noizbehinka. Bazkide egin.
- Liburu dendetara edota azoketara joan eta liburuak beraiek aukeratu.
- Etxean liburuak eskura izan, nahi dutenean hartzeko.
- Kalitate literarioa duten ipuinak eskaini (Galtzagorri elkartearren eskutik liburu gomendioak: <https://www.galtzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura>)
- Nahiz eta irakurtzen jakin, beraiekin irakurtzen jarraitu, irakurketa partekatu.
- Irakurketarako giro egokia bermatu.
- Lagunen artean liburuak trukatu.
- Libururik ez debekatu.
- Irakurtzen dutenaren gaineko interesa azaldu eta guk irakurtzen dugunaren inguruan komentarioak egin.

## 5. ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

### 5.1. HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du ikasleei oinarrizko konpetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.

Horiek horrela, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin.

Departamentu honen jarduna bi prozesutan gauzatzen da, gehien bat: Tutoretza eta orientazioa, eta aniztasunari erantzuna (ikus “3.3. Irakasgaiak: tutoretza” atala).

## 6. PROIEKTUAK

### 6.1. HIZPRO-EUSKARAZ BIZI

Orereta Ikastolaren sorrera-helburuak euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eraman arren, helburua betetzeko zaitasunak agerikoak dira Orereta Ikastolan eta euskararen lurrarde osoan.

Orereta Ikastola arnascune bat dela jakin arren, asko dugu egiteko. Badira urte batzuk, ikasleak euskararen normalizazioan protagonista izendatu genituela. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta, ikasleen aitzindaritza suspertuz, dinamika desberdinak jarri genituen indarrean.

#### Ikasleak

BLAITU euskara taldea abian da orain urte batzuetatik hona, gela bakoitzeko ordezkariekin. Bertan aztertu eta diseinatuko dira etapa osorako indarrean jarritako jarduerak eta ekimenak. Beraz, euskararen erabilera sustatzeko, ikasleen motibazioa areagotu eta kalitatea hobetzeko egitasmoa da BLAITU euskara taldea. Horrez gain, 2025-26 ikasturtean proiektu berriak diseinatu eta martxan jarriko dira ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko eta beren motibazioan eragiteko.

#### Langileak

Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

#### Familiak

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntz erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntz erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztieta.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatz (euskarazko komunikabideak, adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positiboan eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

## Juul kanpaina

2025-2026 ikasturtean Juul kanpaina jarriko da martxan. Helburua irakurzaletasuna sustatzea da. Ikastetxe bakoitzak bere etaparako liburu zerrenda bat egiten du, liburu horiek erosten dira eta ikasleak liburu horiek irakurtzen joango dira. Liburuaren Eguna hurbiltzen denean bozketa bat egiten da. Bozka horien emaitzak Juul kanpainen arduradunari bidaltzen zaizkio.

## 6.2. ZUBIAK ERAIKIZ

2016an sinatu genuen Zubiak Eraikiz hitzarmena Ipar Euskal Herriko lau ikastolarekin. 2024ko ekainean zortzi Ikastolak berritu genuen: Hendaiko Gure Ikastolak, Ziburuko Kaskaroteneak eta Piarres Larzabal kolegioak, Biriatuko Ikastolak, Berako Labiaga Ikastolak, Lesakako Tantirumairuk, Elizondoko Baztan Ikastolak eta Orereta-Oiartzoko Ikastolok.

### Hitzarmenaren helburua

Lurralde administratibo ezberdinietan kokatuta egonik, zubi bat eraikitza elkarrengana hurbiltzeko. Horregatik, gure Ikastoletako ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak harremanetan jarri nahi ditugu, euskara ardatz hartuta; Lapurdiko, Nafarroako eta Oarsoaldeko eremu euskalduna osatzen dugun pertsonen arteko loturak indartzeko eta elkarrekin hainbat arlotako ekintzak aurrera eramateko.



## 7. BARNE ARAUDIA: ZENBAIT OHAR

### 7.1. ASISTENTZIA

Ikasleen Eskubide eta Betebeharrok dokumentuko 23. artikuluan oinarrituta, ikuskaritzatik eman dizkiguten jarraibideak jarraituz, hona hemen hutsegiteak justifikatzeko erabiliko dugun era:

- Klaseetara joatea derrigorrezkoa da. Klaseetara huts egitea kasu guztietan komunikatu beharko da. Jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzak hezkuntza jarduera arrunten kontsiderazio bera dute, hutsegiteak komunikatzeko prozedurari dagokionez.
- Ikaslek etortzerik ez dutenean, ahal den guztietan, gurasoek edo legezko arduradunek Inikaz jakinarazi behar dute.
- Gurasoei dagokie seme-alaben hutsegitearen berri ematea; tutoreari, berriz, ontzat jotzea. Zalantzak izanez gero, etapako zuzendaritza taldeak erabakiko du onargarria den ala ez.
- Hutsegitea onartezina denean, familiari jakinaraziko zaio. Udaleko gizarte zerbitzuei eta ikuskaritzari hutsegiteen berri ematera behartuta gaude.

## 7.2. OSASUN ARRETA

- Ikastolan ez diegu ikasleei botikarik emango, medikuaren agiririk gabe.
- Ikasleren bat gaixotuko balitz, gurasoei deituko zaie, eta haien utorri beharko dute ikaslearen bila.
- Larrialdi egoera bat jazoko balitz, larrialdi zerbitzuei hots egingo zaie Ikastolatik, baita gurasoei ere.
- Gaixotasun kronikodun ikasleentzako protokolo bat dugu. Ikasleren baten kasua balitz (asma, medikazioa hartu beharra, krisaldiak...), tutoreari jakinarazi beharko zaio, berak protokoloa martxan jar dezan.
- Ikasleren batek alergiarik edo janari batekiko arazoren bat baldin badu, sendagilearen ziurtagiria Inikaz (mezularitzatik) bidali behar da idazkaritzara.

## 7.3. ESKOLA-ORDUZ KANPOKO MOMENTUAK (EGUERDIAK ETA ARRATSALDEAK)

- Eskola-ordutegia hasi aurretik (9:00ak baino lehen) eta amaitzean (16:30ean) ikasleak Ikastolako eremuan gelditzen badira, gurasoen ardurapean izango da. Eskolaz kanpoko jardueretan bertako monitoreek izango dute zaintzaren ardura.
- Gurasoek eskola ordutegia amaitu aurretik seme-alaben bila utorri behar badute, gelaraino joan beharko dute.

## 1. METODOLOGÍA

En LH damos continuidad al camino de la Pedagogía de la Confianza que se inicia en HH. Para ello, por una parte, hemos diseñado espacios y momentos en los que las y los alumnos trabajan de forma autónoma para poder desarrollar las competencias a adquirir. Por otro lado, los proyectos propuestos por el equipo docente deberán ser realizados tanto en grupo como de forma individual con el fin de contribuir al desarrollo de su proceso de aprendizaje.

## 2. EVALUACIÓN

El proceso formativo del alumno o alumna se evaluará en base a las competencias. A lo largo del curso se recibirán dos informes que reflejarán los logros, desarrollo y mejora del alumnado. Estos informes escritos se harán llegar a través de Inika, uno la última semana de enero y otro el último día de clase de junio.

En los informes se evaluarán tanto las competencias clave como las específicas de las áreas.

Las **competencias clave** que se evaluarán son las siguientes:

- **Competencia en comunicación lingüística**

Es la capacidad de expresarse oralmente o por escrito para entender y expresar con claridad sus ideas. Es la base para el pensamiento personal y la construcción del conocimiento en todos los campos del conocimiento.

- **Competencia plurilingüe**

Competencia en el uso de diversas lenguas para comunicarse en diferentes lenguas y comprender otras culturas. Esta competencia supone el reconocimiento y respeto de los perfiles lingüísticos de cada persona.

- **Competencia STEM**

La competencia STEM implica la comprensión del mundo, utilizando métodos científicos, pensamientos y representaciones matemáticas, tecnología e ingeniería para transformar el entorno de forma comprometida, responsable y sostenible.

- **Competencia digital**

Utilización responsable y segura de la tecnología para la búsqueda, generación y comunicación de la información.

- **Competencia personal, social y de aprender a aprender**

Capacidad de reflexión sobre una o uno mismo, para conocerse a sí mismo o misma, aceptarse y fomentar el crecimiento personal y permanente; para gestionar eficazmente el tiempo y la información; para cooperar constructivamente con otros y otras, para mantener la resiliencia; y para gestionar el aprendizaje a lo largo de la vida.

- **Competencia para la ciudadanía**

Saber convivir de forma pacífica y responsable con las y los demás: fomentar la empatía, el respeto y la cooperación.

- **Competencia emprendedora**

Tener ideas, elaborar planes y tener iniciativa para llevarlas a cabo. No se trata solo de hacer empresa, sino de ser creativ@ y activ@.

- **Competencia en conciencia y expresión cultural**

Capacidad para valorar el arte, la música o las manifestaciones culturales y desarrollar la propia creatividad. Comprender y respetar la manera de expresar ideas y significados de forma creativa, comunicativa en las diferentes culturas, así como a través de las diferentes artes y manifestaciones culturales.

Para la consecución de las competencias fundamentales anteriores, el alumnado trabajará en **asignaturas**. Algunas de estas áreas serán evaluables, estas serán las que aparecerán en los informes:

- **Euskara eta literatura**

Se trata del uso de textos orales y escritos en euskera para comunicarse de forma adecuada, eficaz y respetuosa con la diversidad lingüística en todas las situaciones de la vida.

- **Lengua castellana y literatura**

Se trata del uso de textos orales y escritos en castellano para comunicarse de forma adecuada, eficaz y respetuosa con la diversidad lingüística en todas las situaciones de la vida.

- **Lengua extranjera**

Consiste en la utilización de textos orales y escritos en inglés para comunicarse en inglés de forma adecuada, eficaz y respetuosa con la diversidad lingüística en todas las situaciones de la vida.

- **Competencia matemática**

Utilizar el conocimiento matemático para interpretar, describir, explicar y responder a problemas relativos a las necesidades de la vida.

- **Conocimiento del medio natural, social, cultural**

El área de conocimiento del medio natural, social y cultural se concibe como un ámbito cuyo objetivo es que los niños y niñas lleguen a ser comprometidos, responsables y respetuosos con todas las personas y con el mundo en el que viven, desde el conocimiento de los aspectos fundamentales de las ciencias naturales, sociales, geográficas, históricas y culturales.

- **Educación artística**

Asimismo, conocer los diferentes lenguajes artísticos, utilizando sus códigos para producir mensajes artísticos, y expresarse y comunicarse con iniciativa, imaginación y creatividad.

- **Educación física**

Trabajar con creatividad y expresividad situaciones propias y del ámbito motor de actuación de las y los demás. Adquirir hábitos de actividad física y deportiva que contribuyan a un bienestar integral basado en un estilo de vida saludable.

Además de los informes, las y los tutores de LH1 se reunirán dos veces con las familias de las y los alumnos para seguir de cerca el proceso de aprendizaje de su hijo o hija:

- **1<sup>a</sup> reunión:** Se celebrarán entre la primera y la cuarta semana de octubre. El objetivo de esta reunión será el conocimiento mutuo entre la familia y el tutor o tutora, reforzar la confianza mutua e informar sobre la adaptación del alumno o alumna en los primeros días.
- **2<sup>a</sup> reunión:** se celebrará entre mayo y junio para tratar las competencias del alumno o alumna de fin de curso.

### 3. ÁREAS/CAMPOS

#### 3.1. CIRCULACIÓN AUTÓNOMA

Durante tres horas a la semana podrán disfrutar y aprender de la circulación autónoma. Con esta metodología pretendemos animar al alumnado a aprender a tomar decisiones, aprendiendo a autorregularse y desarrollando su autonomía. En estas sesiones todos los alumnos y alumnas de primero circularán juntos y juntas.

- **Espacio tranquilo y lúdico:** Son rincones diseñados teniendo en cuenta las características de los alumnos y alumnas, en los que encontrarán una serie de tareas que les permitirán avanzar tanto en el pensamiento matemático como en el proceso de lectura y escritura. Se potenciará la producción de textos propios,

independientemente de su nivel de redacción. Una zona será tranquila y la otra, en cambio, tendrá como objetivo la lucidez y el juego.

- **Espacio creativo:** Contarán con rincones dotados de materiales de diferentes disciplinas (plástica, música, ciencia, experimentación...) con los que se pretende experimentar y despertar su creatividad.

### 3.2. PROYECTOS

Txanela es un material que nos ayuda, principalmente, a desarrollar el euskera y las competencias en literatura, ciencia, y valores sociales y cívicos. Hemos elegido temas que, en general, a las y los alumnos les gustan mucho, para que adquieran los contenidos propios del nivel y desarrollos las competencias.

A lo largo del curso el equipo docente propondrá los siguientes temas:

- **¡lupi, estamos en primero!** Se trata de una unidad de apoyo a la adaptación de HH a LH. Conocerán a los nuevos compañeros y compañeras, fomentarán la cohesión grupal, organizarán el aula, y conocerán al equipo docente y el horario de clase.

La confianza en sí mismo o misma y en el entorno será imprescindible para superar los objetivos y retos del curso de una manera agradable.

- **En la época de los dinosaurios.** El alumnado conocerá la historia y la prehistoria siguiendo un orden cronológico. El primer tema tratará de los dinosaurios. En este tema tendrán como objetivo crear una maqueta de la época y organizar una exposición para sus familias.
- **Los primeros seres humanos.** Después viajaremos al paleolítico en la máquina del tiempo y conoceremos aquella época histórica. En este tema se tratará de identificar y obtener información. Para ello será necesario aprender y trabajar en equipo. Esta unidad tendrá como objetivo la organización y realización de una obra teatral.
- **El secreto de la naturaleza.** Para finalizar el curso, analizaremos los elementos que rodean: tanto a los seres inanimados como a los vivos, entre los que se encuentran árboles, flores y animales. El objetivo de esta unidad será analizar el entorno cercano y organizar una exposición con todo lo aprendido.

### 3.3. ASIGNATURAS

#### EDUCACIÓN ARTÍSTICA

En las sesiones de educación artística nos basamos en las teorías de Arno Stern y Karl Orff. Teniendo en cuenta sus ideas, nuestra misión es ofrecer las condiciones adecuadas (espacio, material, ambiente agradable) para que las y los alumnos expresen lo que tienen en su interior mediante la investigación y la experimentación.

#### EDUCACIÓN FÍSICA-PSICOMOTRICIDAD

“Es un proceso que va desde la acción, el juego y el movimiento a la creación del pensamiento; es decir, el proceso en el que el niño o niña llega al mundo simbólico. Desarrolla sus representaciones mentales conscientes e inconscientes a través de sus acciones, sensaciones y emociones. La o el niño puede desarrollar en el aula de psicomotricidad un proceso que va “del placer de jugar y de moverse al placer de pensar”. (Escuela de psicomotricidad Luzaro)

#### BASO ESKOLA

El entorno de Añabitarte nos permite disfrutar de la baso eskola pasando la mañana en nuestro bosque, al menos una vez al mes. La baso eskola es una sesión escolar que se desarrolla en la naturaleza. Las y los niños juegan, investigan y aprenden en el bosque o en un entorno natural, y las y los adultos juegan el papel de observadores, ayudándoles (no conduciéndoles).

#### INGLÉS

Con el material “The adventures of Hocus and Lotus”, las y los alumnos se sumergirán en seis historias durante todo el curso. El objetivo será interiorizar las estructuras de frases aprendidas en cuentos, canciones y juegos e ir integrándolas en el día a día. En los cuentos se trabajarán diferentes contenidos: presentación de personajes, ropas, partes del cuerpo, juguetes, cumpleaños y el verano.

#### MATEMÁTICAS


Trabajaremos con el proyecto Innovamat. Propondremos a las y los alumnos actividades basadas en la manipulación para que posteriormente desarrollem su capacidad para llegar a la abstracción. Tendrán cuatro sesiones semanales. En dos sesiones (laboratorio de números) trabajaremos la numeración y las operaciones. En otra sesión (el reto) se abordarán la geometría, la lógica, la estadística y las medidas. En la última sesión utilizaremos la app para sistematizar lo aprendido en otras sesiones.

## TUTORÍA

Tutoría y orientación es un conjunto de actividades que se trabajarán tanto dentro como fuera del aula, y que contribuirán a su desarrollo personal: autoconocimiento y aceptación (desarrollo personal), mejora del proceso de socialización (desarrollo social), desarrollo de aprendizaje (procesos de aprendizaje) y toma de decisiones de futuro (orientación profesional).

### Respuesta a la diversidad

Se trata de un conjunto de medidas y programas para dar respuesta a las diferentes necesidades del alumnado, contribuyendo al máximo desarrollo de las competencias básicas.



## PROYECTO COMUNITARIO

El objetivo principal de esta materia es desarrollar las competencias sociales y cívicas y contribuir a través de ellas a la comunidad. En estas sesiones trabajaremos y llevaremos a cabo diferentes temas e iniciativas relacionadas con nuestro entorno social: Gau Beltza, actividades de Blaitu, 8 de marzo, Agenda 30...

## 4. AYUDANDO DESDE CASA

El apoyo de las familias es fundamental en la educación de las y los alumnos, y es necesario seguir desarrollando una actitud responsable y la autonomía en este nivel de LH. Por ello, solicitamos especial atención en los siguientes puntos:

### ORGANIZACIÓN SEMANAL

- Necesitan que se les ayude a darse cuenta de los días en los que van a ir a la baso eskola, tienen sesión de psicomotricidad, etc. Es necesario ayudarles a preparar la ropa que necesitarán para ese día.
- Tendrán que preparar las mochilas y la ropa para el día siguiente, y ver si han llevado notas a casa.
- Los libros y la información para el “txoko txuri” deberán prepararse previamente, y entre todos (alumno o alumna y la familia).

### MOTIVACIÓN

- Mostrar interés por los temas que se trabajan en el aula.
- Valoración y elogio del progreso realizado durante el curso.

## USO DEL EUSKERA

- Animar a consumir medios de comunicación en euskera y a realizar actividades de ocio en euskera.

## AUTONOMÍA

Asumir responsabilidades tanto en las actividades de la Ikastola como en la vida cotidiana:

- Afrontar los problemas que surgen.
- Tener actitud positiva y activa ante las dificultades. Que ellos y ellas mismas busquen soluciones; siempre y cuando lo necesiten, con nuestra ayuda.

El proceso hacia la autonomía es progresivo y personal.

## EDUCACIÓN ARTÍSTICA

- Evitar comentarios como “está bien/está mal”, “dibujo bueno/malo”, “bonito/feo”, que podrían dificultar el proceso. Con este tipo de comentarios estamos juzgando el trabajo de las y los alumnos. Utilizar frases como “¿estás a gusto?”, “¿te lo estás pasando bien?”
- Evitar preguntas como “¿qué es esto?”, “¿qué estás dibujando?”, respetando las diferentes fases de cada alumno o alumna (en algunos casos, la imagen creada no tiene un objetivo expresivo).
- Crear un contexto que evite la comparación, la competencia y los juicios. Cada alumno o alumna tiene su propio ritmo, su papel, su interés... por lo que no todos ellos pueden compararse.
- Ofrecer a cada uno o una opciones para expresar lo que quiere sin límites ni juicios.

*"Cada niño es un artista, el reto es que siga siendo artista a medida que vaya creciendo."* (Pablo Picasso)

## AFICIÓN A LA LECTURA

Recomendaciones para fomentar la lectura en casa:

- Que los padres y madres sean un ejemplo para sus hijos e hijas.
- Relacionar la lectura con la afectividad.
- Que los padres y madres cuenten muchas historias: sus historias reales.
- Aprovechar las situaciones cotidianas para leer, aprovechar sus aficiones.
- Ir a la biblioteca de vez en cuando. Hacerse socio o socia.
- Visitar librerías y ferias, y dejar la elección de libros en manos del o la menor menor.

- Disponer de libros en casa para que los cojan cuando quieran.
- Ofrecer cuentos de calidad literaria (recomendaciones de la mano de Galtzagorri Elkartea: <https://www.galtzagorri.eus/es/infanto-juvenil>)
- Aunque sepamos leer, seguir leyendo con ellos y ellas, compartir la lectura.
- Garantizar un ambiente adecuado para la lectura.
- Intercambiar libros entre amigos y amigas.
- No prohibir ningún libro.
- Interesarse por lo que leen y hacer comentarios sobre lo que leemos.

## 5. DEPARTAMENTO DE ORIENTACIÓN

### 5.1. OBJETIVOS

La orientación es un proceso de acompañamiento continuo que tiene como objetivo ayudar al alumnado a adquirir las competencias básicas y desarrollar su proyecto personal.

Por ello, la función principal del departamento de orientación de Orereta Ikastola es fomentar la orientación educativa en todo el currículo y con todo el alumnado. La actuación de este departamento se desarrolla principalmente en dos procesos: tutoría y orientación, y respuesta a la diversidad (ver el apartado “3.3. Asignaturas: tutoría”)

## 6. PROYECTOS

### 6.1. HIZPRO – EUSKARAZ BIZI

El objetivo fundacional de Orereta Ikastola es la transmisión y promoción del euskera y de la cultura vasca. A pesar de las continuas actividades y campañas llevadas a cabo, las dificultades para cumplir el objetivo son evidentes en Orereta Ikastola y en todo el territorio del euskera.

Hace ya varios años que nombramos a las y los alumnos protagonistas en la normalización del euskera. Revisamos el proyecto Euskaraz Bizi y, estimulando el liderazgo del alumnado, pusimos en marcha diferentes dinámicas.

El grupo de euskera BLAITU ya está en marcha desde hace unos años con las y los representantes de cada aula. En él se analizan y diseñan las actividades e iniciativas puestas en marcha para toda la etapa. Para fomentar el uso del euskera, el grupo BLAITU es un proyecto para aumentar la motivación y mejorar la calidad lingüística del alumnado. Además, en el curso 2025-26 se diseñarán y pondrán en marcha nuevos proyectos para fomentar el uso del euskera entre el alumnado e incidir en su motivación.

## Alumnado

En 2025-26 también organizaremos el grupo de euskera BLAITU con las y los representantes de cada clase. En él se analizan y diseñan las actuaciones e iniciativas puestas en marcha para toda la etapa. Por tanto, el grupo de euskera BLAITU es un proyecto para fomentar el uso del euskera y mejorar su calidad.

## Profesorado

Todos los y las profesoras y trabajadores asumimos un compromiso claro de impulsar el uso del euskera, así como de seguir mejorando la formación en los ámbitos que nos corresponden.

## Familias

Queremos incidir especialmente en la importancia de la familia en los hábitos lingüísticos de las y los alumnos.

Los padres y madres euskaldunes tienen en su mano la forma más eficaz de asegurar el uso y capacidad lingüística de sus hijos e hijas: utilizar el euskera entre ellos y ellas, entre las personas adultas. Cuida el idioma en todos los ámbitos de la vida.

Los padres y madres castellanoparlantes pueden aportar su granito de arena mostrando interés por el euskera y fomentando el uso generalizado del euskera entre sus hijos e hijas. Por ejemplo, a través de los medios de comunicación en euskera, pueden incidir positivamente en el uso del euskera de sus hijos e hijas. Nada que decir si se animan a aprender euskera.

## Campaña “Juul”

En el curso 2025-2026 se pondrá en marcha la campaña Juul. El objetivo es fomentar el gusto por la lectura. Cada centro hace una lista de libros para su etapa, se compran esos libros y las y los alumnos irán leyendo esos libros. Cuando se acerca el Día del Libro hacen una votación. Los resultados de estos votos se envían al responsable de la campaña Juul.

## 6.2. “ZUBIAK ERAIKIZ”

En 2016 firmamos el acuerdo “Zubiak Eraikiz” con cuatro Ikastolas de Iparralde. En junio de 2024 la renovamos entre Gure Ikastola de Hendaye, Kaskarotenea y Piarres Larzabal Kolegioa de Ziburu, la Ikastola de Biriatu, Labiaga Ikastola de Bera, Tantirumairu de Lesaka, Baztan Ikastola de Elizondo y Orereta-Oiartzko Ikastola.

ZUBIAK  
ERAIKIZ  
IKASTOLAK BEREN BIDEAN

## Objetivos del acuerdo

Construir y reformar la relación entre las Ikastolas en diferentes territorios administrativos. Queremos poner en contacto a las y los alumnos, profesores, trabajadores y familias de nuestras Ikastolas tomando el euskera como eje vertebrador; fortalecer los lazos entre Lapurdi, Nafarroa y Oarsoaldea; y llevar a cabo de forma conjunta acciones en diferentes ámbitos.

## 7. NORMATIVA INTERNA: ALGUNAS NOTAS

### 7.1. ASISTENCIA

Basado en el artículo 23 del documento Derechos y Deberes del Alumnado, siguiendo las instrucciones que nos han facilitado desde inspección, la justificación de las faltas se realizará de la siguiente manera:

- Es obligatorio asistir a las clases. Las faltas de asistencia deberán comunicarse en todos los casos. Las actividades complementarias y extraescolares tienen la misma consideración que las actividades educativas ordinarias en lo que respecta al procedimiento de comunicación.
- Siempre que sea posible, los padres/madres o responsables legales del alumno o alumna deberán comunicarlo por Inika.
- Corresponde a las familias la comunicación de las faltas de sus hijos e hijas. La tutora o tutor lo dará por aceptada. En caso de duda, el equipo directivo de la etapa decidirá si es o no aceptable.
- Cuando la falta sea inaceptable se comunicará a la familia. Estamos obligados a comunicar las faltas tanto a los servicios sociales municipales como a inspección.

### 7.2. ATENCIÓN SANITARIA

- En la Ikastola no vamos a dar medicamentos al alumnado sin el certificado de un médico.
- En el caso de que algún alumno o alumna enferme, se llamará a su familia, que deberá venir a recogerle.
- En caso de producirse una situación de emergencia, la Ikastola avisará a los servicios de emergencia y a la familia.
- Hemos puesto en marcha un protocolo para el alumnado con enfermedades crónicas. Si es el caso de algún alumno o alumna (asma, necesidad de tomar medicación, crisis...), se deberá informar al tutor o tutora para que ponga en marcha el protocolo.
- En el caso de que un alumno o alumna presente alguna alergia o trastorno alimentario, el certificado médico se enviará a través de Inika (mensajería) a secretaría.

### 7.3. MOMENTOS FUERA DE LAS HORAS DE CLASE (MEDIODÍA Y TARDE)

- Si antes de comenzar el horario escolar (antes de las 9:00 horas) y al finalizar el mismo (a las 16:30 horas) las y los alumnos se quedan en la zona de la Ikastola, será bajo la responsabilidad de sus familias. En el caso de las actividades extraescolares, serán las y los monitores los responsables del cuidado.
- Los padres y madres que tengan que venir a buscar a sus hijos e hijas dentro del horario lectivo deberán ir hasta el aula.